

MOZIO ARRUNTA,

DONOSTIAKO EKIALDEKO AIREAREN KALITATEA NEURTZEKO BEHARRA DELA-ETA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, **ekialdeko airearen kalitatea neurtzeko estazioa dela-eta.**

JUSTIFIKAZIOA

Pasaiaiko Portuaren jarduerak eragin zuzena edo zeharkakoa du biztanleriaren egunerokoan: ingurumena, mugikortasuna, osasuna, ekonomia... Eragin hori Portuaren inguruko udalerrri guztietara hedatzen da, bereziki bere urak inguratzen dituenen artean: Pasaia, Lezo, Errenteria/Orereta eta... Donostia ere! Trintxerpetik Buenabistara doan tartean, Gomistegi, Herrera, Oleta,... zonaldeetan, hau da, Udalak Bidebieta eta Altza moduan definitu dituen auzoetan 29.546 donostiar bizi dira, guztiak Pasaiaiko Badiaren inguruan. Ondorioz, handia da Donostiako ardurapean dagoen biztanleriaren kopurua, Pasaiaiko Portuak beraiengan eragina eduki dezakeena kontuan hartuta.

Eragin negatiboen artean inguruko biztanleriaren osasun indize kezkarriek azaltzen dituztenak daude; izan ere, ikerketa batek baino gehiagok (adibidez, Osakidetza egindako atlas epidemiologikoak) eman ditu zonalderako bizi itxaropenari dagozkion datu oso kazkarrak. Zalantzarik gabe, osasunean intzidentzia handia duen eragile bat da airean dagoen kutsadura, arnasten duguna baikara.

Eusko Jaurlaritzari dagokio airearen kalitatea neurtu, erregistratu eta prozesatzea, Airearen kalitatearen kontrolerako Sareen bidez. Sare horrek Donostian bost estazio ditu, baina bat bakarra ere ez dago Portutik gertuen dauden Donostiako lurretan. Donostiako estazioen artean Portutik gertuena Ategorrietan dago eta, beraz, Mirakruz gainaren beste isurian. Portuan bertan, Donostiatik gertuena Lezon dago; beraz, urrun samar, are eta gehiago haizerik ohikoena mendebaldekoa dela kontuan hartuta. Beraz, Portuaren eragina Donostiako ingurunean zein den fidagarritasunez neurtzea zaila da egun dagoen estazioen distribuzioarekin.

Donostiako Udalak, desberdinkeriak gaindituz, biztanle guztien bizimoduan positiboki eragitea helburu du. Kutsadura arriskuak tarteko eta zonaldeko ezaugarriak presente, egoki eta beharrezkoa da datu fidagarriak zein arrisku egoerei dagokien premiarekin jasotzeko modukoak izatea. Hori dela eta, azaldutakoak oinarri (ohiko haizearen norabidea, ia 30.000 biztanleren kokapena, osasun indizeak...) beharrezkoa zaio inguru horretan (Trintxerpetik Buenabistara doan tartean, hau da, Udalak Bidebieta eta Altza moduan definitu dituen auzoetan) airearen kalitatea neurtzeko estazio bat izatea.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udaltzakeriak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari bidera dezan Pasaiako Portuaren ingurutik gertu dagoen Donostiako zonaldean, airearen kalitatea neurtzeko estazio bat kokatzea, Udaltzakeriarekin adostu ondoren, honek eskura jarriko dion eremuan.

Donostian, 2018ko irailaren 7an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko bozeramailea